



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi



Maiatzak 12: Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Eguna Hirugarren Sektorre Sozialak Agenda 2030en aurrean duen jarrera aurkeztu du

- Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Legearen seigarren urteurrena ospatu du, Iñigo Urkullu lehendakaria eta hainbat erakunde sozial bildu dituen ekitaldian.
- Elkarteak Juan Cidi eman dio Sareen Sarea saria, 30 urtez autismoaren inguruko elkarten mugimendura atxikita egon baita.
- Aurtengo gai nagusia eraldaketa soziala izan da, eta “Oraindik asko dago margotzeke. Gizartea eraldatuz” lelopean, Sareen Sareak Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Agenda 2030en aurrean duen jarrera jasotzen duen dokumentua aurkeztu du.

Gasteizen, 2022ko maiatzaren 11n. Bihar, maiatzaren 12an, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Eguna da. Hori ospatzeko, gaur [Sareen Sareak](#), sektoreko sareak eta erakundeak batzen dituen elkarteak, antolatutako ekitaldia egin dugu Gasteizko Artium museoan. Ekimenak 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea indarrean sartu izana oroitzen du. Lege horrek Euskadiko hirugarren sektorre sozialean inflexio-puntua markatu zuen. “Oraindik asko dago margotzeke. Gizartea eraldatuz” lelopean, Sareen Sareak dibertsitatearen, inklusioaren eta elkartasunaren koloreekin margotutako Euskadiren alde lan egiteko beharra aldarrikatu du. Ekitaldian, apirilean Bilbon egindako pintaketa kolektibotik sortu zen eraldaketa sozialaren aldeko horma-irudia aurkeztu du elkarteak. Ekitaldian parte hartu duten pertsonak azken pintzelkadak eman ahal izan dituzte horma-irudia amaitzeko.

Bi urteko pandemiaren ostean, gizarte-erakundeek haien eguna egoera normalizatuagoan ospatu ahal izan dute. **Borja Doval, Sareen Sareko presidentek** ongietorriarako egin duen hitzaldian honakoa adierazi du: “hirugarren sektorre sozialaren esentzian dago guztion artean gizarte bidezkoago eta solidarioagoa eraikitzeko borondatea, kohesionatuagoa, inklusiboagoa eta parte-hartzaileagoa”. Seigarren edizio honetan erakundeetako, gizarteko eta politika arloko 130 pertsonak hartu dute parte.

Ekitaldian izan da **Iñigo Urkullu lehendakaria** eta erakundeei haien lana eskertu die, hirugarren sektorre sozialaren funtsezko izaera nabarmenduz. Alde horretatik, Urkulluk nabarmendu du Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeak. “Erakunde sozialean aritzen diren pertsonen konpromisoa eredu bat da gure gizartearentzat”, adierazi du lehendakariak.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi



Sareen Sarea Saria

Hirugarren Sektorre Sozialaren eguna **Euskadi solidarioagoa, kohesionatuagoa eta sozialki inklusiboagoa eraikitzeko konpromisoa izan duten eta horretarako lan egin duten pertsonen ibilbidea aitortzeko unea ere bada**. Aitortza hori egiteko, Sareen Sareak **Juan Cid Pardori** eman dio Sareen Sarea saria, 30 urtez autismoaren inguruko elkarten mugimendura atxikita egon baita. Euskadin, Gautenan eta FEVAS Euskadiko Erabateko Gizarteratzean egin da eta bertako zuzendaria izan da. Halaber, Gertuan Fundazioko kidea ere izan da.

Ibilbide luzean zehar, Juan Cidek adimen desgaitasunaren edo garapen desgaitasunaren inguruko elkarten mugimendua indartzen lagundu du, eta, gainera, Hirugarren Sektorre Sozialako erakundeekin eta Euskadiko erakundeekin aliantzak eta lankidetzak sustatu ditu. “Juan Cidek adimen edo garapen desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien eskubideen aldarrikapenen aitzindaria izan da, eta ardura hori bere bizitza pertsonalarekin eta lanarekin uztartu du” azaldu du Sareen Sareko presidentek.

Cidek omenaldia eskertu du eta pertsona guztien dibertsitatearen inguruko babesaren garrantzia nabarmendu du: “Beharrezko babesarekin hazi eta egiten dugu aurrera, pertsona moduan eta gizarte moduan”. Halaber, Cidek honakoa gogorarazi du: “Beharrezko balioen defizitaren testuinguru honetan, Hirugarren Sektorre Sozialako erakundeen lana inoiz baino beharrezkoagoa da”.

Agenda 2030 eta GJH

Aurtengo ekitaldiko gai nagusia eraldaketa soziala izan da, eta Euskadi bidezkoago, solidarioago eta inklusiboagoaren alde lan egiten jarraitzeko beharra azpimarratu dute. Alde horretatik, ekitaldi instituzionalaren ostean, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialak Agenda 2030en aurrean duen jarrera jasotzen duen dokumentua aurkeztu dute. **Soraia Chacón** Sareen Sareko lehendakariordeak tresna bat aurkeztu du: “antolatutako gizarte zibiletik, erakundeekin eta gizarte-eragileekin batera, benetako garapen jasangarrirako, bidezkorako, parekiderako, solidariorako eta berdinerako aurrerapausoak emateko gako estrategikoak proposatzen dituen tresna da”.

Aurkezpenaren ostean, EHSSk arlo horretan egiten duen lanaren inguruko hitzaldia egin da. “Alde horretatik bidea egin dugu, bai sentsibilizazioan, bai GJHen eta Agenda 2030en ezarpen eta sustapenean”, adierazi du Chacónek. Arantza Sáenz de Ugartek dinamizatutako hitzaldian, **Hirugarren Sektorre Sozialako hainbat sareen esperientziak** entzun ahal izan dira. Zehazki, **Arantza Acha** Euskadiko GGKE-en Koordinakundekoa, **Carlos Askunze** REAS Euskaditik eta Euskadiko Buru Osasuneko **M. José Cano** izan dira GJHen eta Agenda 2030ren aurrean sektoreak duen jarrera eta egindako lana azaldu dutenak.

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala eta Sareen Sarea



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi



Hirugarren Sektore Soziala **irabazi-asmorik gabeko herri-ekimeneko erakundeek osatzen dute** eta helburua da gizarteratzea eta zaurgarritasuneko edo bazterkeriako, babesgabetasuneko, desgaitasuneko eta/edo mendekotasuneko egoerak bizi dituzten pertsonen, familien, kolektiboen eta komunitateen eskubideak modu eragingarrian erabili ahal izaten bultzatzea.

Egun, ia **4.000 erakundeek osatzen dute, 38.000 lanpostu sortzen ditu, 138.000 boluntario daude** eta **Euskadiko % 2,3ko BPGren**¹ baliokidea den bolumena kudeatzen du.

Sareen Sarea elkartea 2014an sortu zen eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko 16 erakunde-sare biltzen ditu. Horiek guztiek hainbat esparru jorratzen dute: desgaitasuna, gizarteratzea, familia, adinekoak, haurrak, etorkinak, enplegurako zentro bereziak, ekonomia soziala, lan-munduratzeko enpresak edo garapenerako laguntza.

“Gizartea bidezkoagoa eta solidarioagoa, kohesionatuagoa eta parte-hartzaileagoa lortzeko egiten dugu lan. Gizarte bidezkoagoa lortzeko proposamenak eta aukerak eraiki nahi ditugu elkarlanean”, azaldu dute Sareen Saretik.

¹2019ko Barometroaren Txostena. *Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia*. 2020ko urtarrila